

Konfiantzako aseguruak 2020

KANPAINAREN OINARRIAK

Agiri honek www.laboralkutxa.eus webguneko "KONFIANTZAKO ASEGURUAK 2020" kanpaina jaso eta zehazten du.

Kanpainaren helburua da auto- eta etxe-aseguru berrien polizak kontratatzea, bai www.laboralkutxa.eus webgunean eta Online Bankan, bai, aurrekontua online egin ondoren, 901 100 200 telefonoan. Poliza horiek, konpainiaren kontratazio-arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete behar dituzte.

1.- Kanpainaren datak:

Sustapena 2020ko abuztuaren 1ean hasi eta 2020ko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edozein unetan, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2020ko abuztuaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean kontratatu behar dira polizak (efektu-datak, berriz, 2021eko urtarrilaren 31ra arteko muga izango du).

2.- Oparia:

Bezeroek 3 abantaila hauek izango dituzte, kanpainaren indarraldian zehar berorren baldintzak betetzen dituen polizaren bat kontratatuz gero:

- **Ordainketa zatikatua** lehen urtean, inolako kosturik gabe, auto- eta etxe-aseguruen kontratazio guztietarako. Ordainagiriaren gutxieneko zenbatekoa: 70 €.
- **Bi hilabeteko kuotak itzultzea, doan**, kanpainako adar bakoitzeko poliza bat kontratatzeagatik, hau da, auto-poliza bat eta etxe-poliza bat.
 - **Auto-asegurua:** auto-aseguru bat kontratatzen badut, hilabeteko kuota itzuliko didate (muga: 60 € kontratatutako poliza bakoitzeko).
 - **Etxe-asegurua:** etxe-aseguru bat kontratatzen badut, hilabeteko kuota doan izango dut (muga: 30 €).
 - **Auto-asegurua + etxe-asegurua konbinazioa:** bi produktuak kontratatzen baditut, 2 hileko kuotak doan izango ditut 2 polizetan (muga: 120 € auto-aseguruan eta 60 € etxe-aseguruan). Poliza gehigarriek ez dute konbinatzeko aukerarik izango. Bigarren polizatik aurrera, guztiek emango dute 2 hileko kuotak doan izateko eskubidea.
 - **Auto-asegurua + etxe-asegurua konbinazioa, bi polizetako bat zorrokoa izanik:** bi produktuetako bat kontratatzen badut eta bestea indarrean eta ordainketetan egunean badut, doan izango ditut poliza berri guztietako 2 hileko kuotak (muga: 120 € itzuliko dizkirate gehienez auto-aseguru berri guztiak batuta).
- Lehen ordainagiriaren **ordainketa** gehienez 60 egun **geroratzea**.
 - **Auto-asegurua:** auto-aseguru bat kontratatzen badut, lehen ordainagiria 30 egunera igorriko didate, efektu-datatik zenbatzen hasita.
 - **Etxe-asegurua:** etxe-aseguru bat kontratatzen badut, lehen ordainagiria 30 egunera igorriko didate, efektu-datatik zenbatzen hasita.
 - **Auto-asegurua + etxe-asegurua konbinazioa:** bi produktuak kontratatzen baditut, produktu bakoitzaren lehen ordainagiria 60 egunera igorriko didate, poliza bakoitzaren efektu-datatik zenbatzen hasita. Poliza gehigarri bakoitzak ez du ordainketa 60 egun geroratzeko aukerarik izango; 30 egun soilik geroratuko da.

3.- Beste baldintza batzuk:

- Eskaintzak soilik balio du LABORAL Kutxaren webgunean edo Online Bankan kontratatzen diren polizetarako edo, aurrekontua online egin ondoren, 901 100 200 telefonoaren bidez kontratatzen direnetarako.
- Ordainketa LABORAL Kutxan helbideratu behar da.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauari jarraikiz hartuko dira.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuekin batera erabili, TOP eta KIDE kolektiboenetan izan ezik. Hilabeteko kuota doan izateko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko. Eskaintza 1.000 auto-eragiketara eta 500 etxe-eragiketara dago mugatuta.
- Doako kuoten zenbatekoa ordainagiria zordundu eta 5 egunera itzuliko da.

Konfiantzako aseguruak 2020

KANPAINAREN OINARRIAK

4.- AUTO-ASEGURUAren baldintzak:

Edozein modalitateetako lehen kategoriako kontratazio berrietarako (Arrisku Orotakoa frankiziarik gabe eta Hirugarrenentzakoa Oinarritzakoa modalitateetan izan ezik), betiere **250 €-tik gorako prima** badute. 27 urte baino gehiago eta 4 urteko gidabaimena duten eta 3 urtean edo gehiagoan ezbeharririk izan ez duten gidarientzat —SINCOOn egiaztatuta— eta diruzko obligazioak betetzeari edo ez-betetzeari buruzko fitxategian ez dauden bezeroentzat. Konpainiaren kontratazio-arauei lotua.

5.- ETXE-ASEGURUAren baldintzak:

Etxe-aseguruen kontratazio berrietarako, betiere Optimoa, Optimoa ON, Optimoa +, PLUS eta Errentatzailea modalitateetarako gomendatutako kapitala edo handiagoa asegurutzen bada edukitzailean. Edukiaren gutxieneko kapitala 20.000 €-koa edo handiagoa izango da Optimoa, Optimoa +, PLUS, Errentaria eta Lehen Arriskua modalitateetan.

Gutxieneko prima 150 €-koa, 13 Etxea Lehen Arriskua modalitatean salbu, horretan 120 €-koa izango baita.

Kanpoan geratuko dira hipoteka-bermeko mailegu berriei lotutako etxe-aseguruen poliza berriak.

6.- Sustatzailea:

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia. Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzaileak: Seguros Lagun Aro SA.

Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita dituzte, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kontsultatu aseguratzaileak hemen: www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aseguruak.

7.- Aplikazio-eremua:

Kanal hauek erabiliz kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina: www.laboralkutxa.eus webgunea, aseguruetan espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200) eta Seguros Lagun Aroren Banka-aseguruetako Operadore Lotetsia den Caja Laboral Popularren banku-banaketakarako sarea —Bitartekarien Administrazio Erregistro Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.